



Begarako
Udala

BALDINTZA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN PLEGUA

BERGARAKO TOKIKO 2030 AGENDA IDAZTEKO ZERBITZUA



AURKIBIDEA

I. KONTRATUAREN EDUKIA

1. XEDEA
2. EPEA
3. KONTRATUAREN PREZIOA
4. KONTRATUAREN BALIO ESTIMATUA ETA LIZITAZIOKO AURREKONTU-OINARRIA
5. FINANTZAKETA
6. ORDAINTZEKO ERA
7. PREZIOAK BERRIKUSTEA
8. BERMEAK

II. KONTRATATZEKO PROZEDURA

9. ADJUDIKATZEKO PROZEDURA ETA MODUA
10. PROPOSAMENAK AURKEZTEA
11. KONTRATAZIO-MAHAIA
12. AGIRIAK SAILKATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA
13. ADJUDIKAZIOA ETA KONTRATUA

III. KONTRATUA GAUZATZEA

14. KONTRATUA GAUZATZEA
15. KONTRATISTAREN LANeko BETEBEHARRAK
16. KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK
17. BAIMEN, LIZENTZIA ETA AUTORIZAZIOEN KUDEAKETARI BURUZKO BETEBEHARRAK
18. SEGURTASUNA ETA OSASUNA
19. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA, KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE

20. KONTRATUA ALDATZEA

21. KONTRATUAREN LAGAPENA (ZESIOA)

22. HARRERA ETA BERME-EPEA

23. DATU PERTSONALEN BABESA

24. KONTRATISTAREN EZ-BETETZEAK, ETA EZ-BETETZEENGATIK KONTRATISTARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK

25. KONTRATUA BERTAN BEHERA LAGATZEKO ARRAZOIAK

26. ADMINISTRAZIOAREN PRERROGATIBAK

IV. IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

27. IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

28. JURISDIKZIO ESKUDUNA

29. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA, LABUR BILDUZ



BERGARAKO TOKIKO 2030 AGENDA IDAZTEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO PROZEDURA IREKIA ARAUTZEKO BALDINTZEN PLEGUA

I- KONTRATUAREN EDUKIA

1. XEDEA

Prozedura ireki honen xedea da Bergarako Tokiko 2030 Agenda idazteko zerbitzua adjudikatzea. Tokiko 2030 Agenda hau osatzeko egin beharreko lanak honako hauek izango dira, gutxienez:

- Udalerriko ingurumenaren, gizartearen eta ekonomiaren egoerari buruzko laburpen diagnostikoa egitea. 2006ko Ekintza Planarekin alderatuz diagnostikoan egon diren aldaketen balorazioa. Adierazleen bidez diagnostikoa GJHeekin erlazionatu eta, diagnostiko horren arabera, Ekintza Planak landu beharko dituen lehentasunezko arloak ezartzea.
- Tokiko 2030 Agendaren Ekintza Plana osatzea: udalerrri mailan landuko diren GJHak lehenetsi eta lehentasunezko jarduera-esparruak identifikatu, eta horiek lortzeko proposamen bideragarri eta zehatzak jaso beharko ditu (programak eta ekintzak).
- Parte-hartze prozesuetan laguntza ematea, bai udal barneko partaidetza prozesuetan (teknikari eta politikoen artean), bai udaletik kanpokoetan (herritarren sektore ezberdinen artean).
- Planaren garapenean egin beharreko komunikazio eta informazio lanak egitea, bai herritarrei zuzendutakoak zein Udaletxe mailan.

Lehenago ezarri den bezala, kontratuaren xede den Bergarako Tokiko 2030 Agenda osatzeko lanak egiteko, adjudikazio-hartzaileak oinarri eta erreferentziazat hartu beharko du "Tokiko Agenda 2030. Nola heldu Garapen Jasangarriaren Helburuei tokiko eremutik. Gida praktikoa" (IHOBE, 2019).

CPV: 79420000-4 – Kudeaketari buruzko zerbitzuak.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen (SPKL) 62. artikuluan aurreikusitakoaren eraginetarako, **Kontratuaren Arduraduna** Ingurumeneneko arduradun teknikoa da.

2. EPEA

Proiektua 9 hilabeteko epean egin beharko da –kontratua sinatzen denetik aurrera–.

3. KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratuaren prezioa honako hau izango da: 48.400 euro –BEZ barne–

Prezioaren barne daude zerbitzua emateko beharrezkoak diren gastu guztiak: kontratazioak, Gizarte Segurantzako kotizazioak, administrazio-kostuak, langileen dietak, material inbentariaezina ...; hau da, udalak plegu honetan berariaz bere gain

hartu ez dituen gastu guztiak. Eskaintzaileek diru-kopuru hori hobetu ahal izango dute. Ezingo da, inolaz ere, prezio altuagorik eskaini. Adjudikazio-hartzaileak eskainitako prezioa ordainduko da.

Adjudikazio-hartzailea BEZa ordaintzetik salbuetsita egongo balitz, behar bezala justifikatu beharko du eta kopuru hori ez da eskaintzan sartuko.

4. KONTRATUAREN BALIO ESTIMATUA ETA LIZITAZIOKO AURREKONTU-OINARRIA

Kontratuaren balio estimatua 40.000 eurokoa da (BEZ kanpo).

Lizitazioko aurrekontu-oinarrria:

- Zuzeneko kostuak:

Langileen kostuak.....32.400 €

- Zeharkako kostuak:.....5.200 €

- Etekin industriala:.....2.400 €

Horrenbestez, lizitazioko aurrekontu-oinarrria hau da:

- Lizitazioko oinarria edo prezioa (BEZ gabe): 40.000 €

- BEZ (% 21): 8.400 €

- Guztira: **48.400 €**

5. FINANTZAKETA

Espresuki adierazten da kontratuak administrazioari sortarazten dizkion betebeharrak ekonomikoak betetzeko adinako diru-izendapena badagoela.

Aurrekontu-partida: 1 0800.643.170.00.01 / Barne kodea 639

6. ORDAINTZEKO ERA

Eskainitako prezioa ordainduko da behin plegu honen xedea den dokumentua egin eta hartutakoan eta betiere dagokion faktura aurkeztu ondoren. Nahitaez, fakturarekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Langileak izanez gero, Udalari fakturatzen zaizkion hileko soldatak haiei ordaindu izanaren agiriak, eta aurreko hileko TC-ak eta horien ondorioz Gizarte Segurantzari ordainketa egin izanaren agiriak.
- Autonomia izanez gero, Gizarte Segurantzari kuota ordaindu izanaren agiria.

Faktura onartu eta gero, hurrengo hilaren lehenengo zortzi eguneko epean ordainduko da.

Udalbatzaren akordioaren bidez onartu ziren Bergarako Udalari faktura elektronikoak bidaltzeko baldintzak. Bertan erabakitakoaren arabera, faktura elektroniko hauek "Facturae" formatuan eman beharko dira (Horri dagokionez, "Facturae" formatuak une bakoitzean erabilgarri dituen bertsioei buruzko informazioa Udalgida web-orrian kontsultatu ahal izango da (www.gipuzkoa.eus helbidean).

Kontratistari leporatzekoak ez diren arrazoiengatik kontratu-xedeko prestazioak aldi batean betetzen ez badira, dagokion fakturan kendura proportzionalak egingo dira.

7. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Ez da preziorik berrikusiko.

8. BERMEAK

Ez da behin-behineko bermerik ezarriko.

Behin betiko fidantza, berriz, BEZik gabeko adjudikazio-prezioaren % 5aren parekoa izango da eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 108. artikuluan aurreikusitako bideetatik edozein erabilia ezarri ahal izango da.

Berme-epea amaitzen denean (sei hilabeteko epea, plegu honen xedea den dokumentua entregatu eta hartzen denetik kontatzen hasita), adjudikazio-hartzaileari bermea itzuliko zaio, osorik edo –bidezkoa bada– zati batean, baldin eta adjudikazio-hartzaileak kontratuko betebeharrak guztiak beteta baditu. Itzulketa hori Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 111. artikuluan ezarritakoari jarraituz egingo da.

II. KONTRATATZEKO PROZEDURA

9. ADJUDIKATZEKO PROZEDURA ETA MODUA

Kontratu honen adjudikazioa prozedura irekiaren bidez egingo da.

Administrazioak ahalmen osoa izango du kontratua bere iritzian abantailarik onenak eskaintzen dituen proposamenari adjudikatzeko, eta horretarako, eskaintza ekonomikoak ez du zertan erabakigarria izan. Era beran, lizitazioa hutsik utzi ahal izango du.

Aurkeztutako eskaintzak baloratzeko orduan, irizpide hau hartuko dira kontuan:

- 1.- Aurkeztutako proiektua (48 puntura arte)
- 2.- Proposamen ekonomikoa (52 puntura arte)

Balio-judizio baten menpe dauden balorazio-irizpideak

Proiektua: 48 puntu arte.

Gehienez 50 orrialdekoa eta paper formatuan. Eskaintza teknikoak (ez ekonomikoak) ez ditu izan behar 50 orrialde baino gehiago, %100 paper birziklatuan (%65, gutxienez, kontsumitu ondokoa), edo baso-kudeaketa iraunkorreko zuntz-educia %20koa gutxienez duen paper birziklatu gabean, alde bietan eta zuri-beltzean inprimatuta (zuri-beltzean interpretatu ezin bada erabili behar da kolorea; bestela, ez), ahalik eta gutxien koadernatua eta plastikozko azalik gabe (errazago birziklatzeko) aurkeztu beharko da.

Aurkezten diren memoria teknikoek honako edukia izan beharko dute, gutxienez:

- Lanak gauzatzeko kronograma, zereginen arabera
- Lanak egiteko proposamen metodologikoa
- Udal barneko eta kanpoko partaidetza prozesurako proposamena

-Planaren inguruko komunikaziorako proposamena

-Diziplina anitzeko teknikarien taldearen antolaketa eta parte-hartzearen deskribapena (CVak, tituluak eta euskara ziurtagiriak eskaintza onuragarriena egin duen lizitatuarekin egingo zaion errekerimendua jaso ondoren, 12.5 ataleko dokumentazioarekin batera).

-Proposatzen diren hobekuntzak

Alderdi teknikoak 48 puntuko balorazioa izango du, eta aurkeztutako eskaintzak honako irizpide hauen arabera baloratuko dira:

- Eskaintza teknikoa garatzea eta udalerraren beharretara zein 2030 Agendaren berezitasunetara egokitzea (20 puntu): Aintzat hartuko dira proposamen metodologikoaren ekarpenak, egin beharreko zereginak xehetasunez deskribatzea, lanen kronograma, eta proposamen teknikoa Tokiko 2030 Agendaren berezitasunetara moldatzea, batez ere Agenda 21aren metodologiarekiko.
- Udal-barneko zein kanpoko parte-hartze saioak egituratzeko eta dinamizatzeko proposamena (9 puntu): Bai udal barneko, bai herritarrekiko kanpoko parte-hartze prozesuak garatzeko proposamen metodologikoak baloratuko dira. Bereziki baloratuko da herritarren parte hartzea teknologia berriak erabiliz sustatzea, eta baita udal langileen zein politikarien parte hartzea sustatuko duten formula erakargarri eta berritzaileak proposatzea.
- Bergarako Tokiko 2030 Agendaren inguruko komunikazio-proposamena (4 puntu): Irizpide honetan baloratuko da Tokiko 2030 Agendari lotutako komunikazioa egiteko proposamena. Bereziki baloratuko da komunikazioa egiteko modu berritzaileak erabiltzea.
- Eskaintako lantaldea proiektuaren beharretara egokituta egotea (8 puntu): gaitasun tekniko gisa zehaztu direnez gain, gehigarri moduan baloratuko dira taldeko kide bakoitzaren curriculum vitae, titulazioa, kategoria profesionala eta proiektuan duen dedikazioa. Memoria teknikoak proposatutako langile gehigarrien zerrenda jasoko du, aipatutako datuak jasoko dituen deskribapen batekin. Curriculum vitae eta titulazioa aurkeztu egin beharko dira adjudikazio-hartzaile gisa proposatutako lizitatuarekin aurkeztu beharreko gainerako administrazio-dokumentazioarekin batera (plegu honen 12.5 atala). Baldintza Teknikoen Pleguko IX.3 atalak xedatzen duen bezala, partaidetza-prozesuetan parte hartzen duten pertsonak euskarari dagokionez Europako Erreferentzia Esparruko C1 gaitasun-maila dutela egiaztatzea beharko dute (gainontzeko dokumentazio administratiboarekin batera).
- Hobekuntzak (5 puntu): Proiektuaren kalitatea hobetuko duten proposamenak baloratuko dira, baina soil-soilik kontratuaren xedearekin zuzen-zuzeneko lotura badute eta, bereziki, 2030 Agendaren inguruko komunikazioa eta partaidetza sustatzeko formula berritzaileak aurkezten badituzte. Ez dira aintzat hartuko plegu honetan eskatutakoa betetzera mugatzen diren proposamenak, nahiz hobekuntza bezala aurkeztu. Soilik baloratuko dira plegu honetan eskatutako gutxienekoak hobetzen edo osatzen dituzten proposamenak.



- Proiektua gauzatzerakoan ingurumen-hobekuntzak izatea, ondorengo taularen arabera (2 puntu): behar bezala beteta, sinatuta eta zigilua jarrita, baloraziorako behar dituen egiaztagiri guztiekin batera. Enpresa eskaintzaileek eranskinean ageri den ingurumenari buruzko jardunbide egokien dekalogoan jaso beharko ditu proiektua gauzaten den bitartean ingurumen-eraginak murrizteko eskura dituzten neurriak eta, horretaz gain, enpresaren adierazpenak bermatzeko behar diren egiaztagiri guztiak aurkeztu behar dira. Eranskineko irizpide bakoitzarengatik, bete eta justifikatzen bada, 0,2 puntu emango dira.

BAI/EZ	ENPRESAN BETETZEN DUGUN JARRAIBIDEA
	1. Energiaren aldetik eraginkorrak diren ekipoak ditugu, energia-kontsumoa ahalik eta txikiena izateko moduan daude programatuta eta horretarako jardunbide jakin batzuk aplikatzen ditugu.
	2. Energiaren aldetik eraginkorrak diren argiztapen eta girotze-sistemak ditugu, baita energia aurrezteko sistemak ere, eta ingurumen jarraibideak aplikatzen ditugu esparru horretan.
	3. Gure jarduerarekin lotutako mugikortasunak sortutako eraginak ahalik eta txikiak izateko neurriak aplikatzen ditugu.
	4. Ingurumenari kalterik egiten ez dion bulego-materiala erabiltzen dugu, eta gure jardueran ez dugu produktu arriskutsu edo toxikorik erabiltzen, edo haien erabilera mugatua da.
	5. Ura aurrezteko ekipoak eta sistemak ditugu, eta horretarako jardunbide jakin batzuk aplikatzen ditugu.
	6. Hondakin arriskutsuak indarrean dagoen araudiaren arabera kudeatzen ditugu, garbiguneetan tratamendu egokia izan dezaten edo hondakinak kudeatzeko baimena duten kudeatzaileek tratamendu egokia eman diezaieten.
	7. Arriskutsuak ez diren hondakinak bereizi egiten ditugu, udal edukiontzietan uzteko, garbiguneetara eramateko edo birziklatzen dutenei entregatzeko.
	8. Ingurumen-prestakuntza ematen diegu langileei, jardueraren ingurumen-eraginaren berri izan dezaten eta eragin horiek ahalik eta txikiak izateko zer egin jakin dezaten.
	9. EMAS, ISO 14001, Ekoscan edo ziurtatu gabeko (baina egiaztatu dezakegun) bestelako ingurumen-kudeaketarako sistema bat dugu.
	10. Beste ingurumen-ohitura batzuk abian jarri ditugu edo aurreko puntuetan adierazi gabeko ingurumen-ekimenetan lankidetzan dihardugu.

Formulen aplikazio bidez automatikoki baloratu daitezkeen irizpideak


Eskaintza ekonomikoa: 52 puntu arte. . Fase honetan, automatikoki baloratu daitezkeen irizpideak (prezioa) balioetsiko dira, honako formula hauek aplikatuta; betiere kontuan hartuta lizitazio-zenbatekoa parekatzen duen eskaintzek 0 puntu lortuko dutela, eta zenbateko hori gainditzen duten eskaintzak, berriz, lizitaziotik kanpo geldituko direla:

Fase honetan, automatikoki baloratu daitezkeen irizpideak (prezioa) balioetsiko dira, honako formula hauek aplikatuta:

- "Bi" berdina edo txikiagoa bada "A1" baino, $P_i = 40 \times B_i / A_1$
- "Bi" handiagoa bada A1 baino, eta txikiagoa A2 baino, $P_i = 40 + 10 \times (B_i - A_1) / (A_2 - A_1)$
- "Bi" handiagoa bada A2 baino, $P_i = 50 + 2 \times (B_i - A_2) / (B_{max} - A_2)$

Non:

- a. a. P_i : "i" zenbakidun eskaintzaren puntuazioa
- b. b. B_i : "i" zenbakidun eskaintzaren baja, portzentaje-unitateetan, lizitazio-aurrekontuarekiko (adib. % 10eko baja, $B_i=10$)
- c. c. B_{max} : gehieneko baja, portzentaje-unitateetan
- d. e. A_1 : $0.25 \times B_{med}$
- e. e. A_2 : $0.50 \times B_{med}$
- f. f. B_{med} : eskaintzek egin duten batez besteko baja, portzentaje-unitateetan, lizitazio-aurrekontuarekiko.



Baja anormala: Eskaintzak neurrigabeak edo anormalak direla-eta proposamenak ezin litezkeela bete uste izateko kontuan hartuko diren mugak hauek dira:

Eskaintza ekonomikoa, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoarekiko, % 20tik behera jaistea.



Neurrigabekotzat edo anormaltzat jotako proposamenei Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 149. artikulua aplikatuko zaie.

Azaroaren 9ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 107.2 artikulua arabera, adjudikazio-hartzailearen eskaintza hasiera batean anormaltzat jotzeko presuntzioaren barruan sartu bada, ezarri beharko duen guztizko bermea izango da eskainitako bukaerako prezioaren ehuneko hamarra (% 10).

Adjudikazio-hartzailearen erruagatik kontratua formalizatu gabe geratzen bada, Udalak bertan behera utzi ahal izango du kontratua, interesdunari entzun eta gero, eta adjudikazio-hartzaileak eragindako kalte-galerak ordaindu beharko ditu.

10. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Lizitazioan parte hartzeko proposamenak Bergarako Udaletxeko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira **15 egun naturaleko** epean, iragarkia Bergarako Udaleko Kontratzailearen Profilean argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita, asteleheneetik ostiralera, goizez, 09:00etatik 13:00etara bitartean.

Epe-bukaerako eguna larunbat, igande edo jaiegun suertatuz gero, hurrengo laneguneko 13:00ak arte luzatuta gelditzen da.

Proposamenak, era alternatiboan, korreoz ere aurkeztu ahal izango dira edo baita Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan aurreikusitako edozein bide ere erabiliz.

Proposamenak posta bidez bidaltzen badira, enpresariak egiaztatu egin beharko du zein egunetan sartu duen bidalketa postetxean eta, horretaz gain, egun berean fax bidez (943 77 91 63 zenbakian) Kontratazio Organoari jakinarazi beharko dio eskaintza bidali duela; fax-ean honako datuak adieraziko dira: espedientearen zenbakia, kontratuaren xedearen izendapen osoa, eta lizitatzaillearen izena.

Fax hori jaso izanaren egiaztapena Udal Idazkariaren diligenziaren bidez egingo da. Lizitazio-iragarkian zehaztutako epea bukatzeko eguna eta gero Kontratazio Organoak jasotako proposamenik ez da onartuko bi baldintza horiek betetzen ez badira. Dena den, epe amaierako datatik hurrengo bost egunetan ez bada dokumentaziorik jaso, jada ez da onartuko.

Ezkutukoak izango dira proposamenak, eta horiek aurkezteak esan nahi du baldintzarik gabe onartzen duela lizitatzailleak plegu honetan aurreikusitako guztia.

Lizitatzailleek ezin izango dute aurkeztu aldagaririk edo alternatibarik, baina bai aurkeztu ditzakete bidezkotzat jotako hobekuntzak.

Proposamenak kartazal itxi batean aurkeztuko dituzte ondorengo idazpen honekin: **“BERGARAKO TOKIKO 2030 AGENDA IDAZTEKO ZERBITZUA KONTRATATZEA”**.

Kartazal horren barruan A, B eta C kartazalak sartuko dira.

"A" kartazalean, "KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA" izenburupean, ondorengo dokumentu hauek sartuko dira:

- a) Europako Kontratazio Dokumentu Bakarra (DEUC). DEUCen formulario normalizatua helbide elektroniko honetan eskura daiteke: <https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/espdp/filter?lang=es> .

Halaber, udalaren Kontratzailearen Profilean XML formatua eskura daiteke, lizitzaileek DEUC betetzeko inportatu ahal izateko.

- b) Aldi Baterako Enpresaburuen Elkarte bat eratzeko konpromisoa (ABEE), hala dagokionean. Bi enpresa edo gehiago lizitazio batera joaten badira ABEE moduan eratzeko konpromisoarekin, deklarazio bat gehitu beharko da adieraziz hori izenpetzen duten enpresaburuen izenak eta inguruabarrak, bakoitzaren partaidetza zein den, eta, esleipendun ateraz gero, konpromisoa hartzen dutela formalki Aldi Baterako Elkarte bat eratzeko. Agiri hori elkarte osatzen duten enpresa guztien ordezkariak sinatu beharko dute. Horrelakoetan, enpresa bakoitzak bere DEUC aurkeztu beharko du.
- c) Atzerriko enpresen deklarazioa. Atzerriko enpresek deklarazio bat aurkeztu beharko dute adieraziz Espainiako arlo guztietako epaitegi edo auzitegien menpe jarriko direla kontratuarekin zuzen edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztietarako, eta, hala dagokionean, uko egiten diotela lizitzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzio foruari.
- d) Posta elektronikoko helbide bat errekerimenduak edo eskaerak egiteko, datuak argitzeko, dokumentazio osagarria emateko edo akats konpongarriak daudela jakinarazteko.
- e) Desgaitasunaren kuotak eta berdintasun-plana betetzeari buruzko zinpeko aitortpena. 50 langile edo gehiagoko enpresen kasuan, langileen % 2k desgaitasunen bat izan behar dute eta horren konpromisoa hartu beharko dute bere gain. 50 langile edo gehiagoko enpresek, aurrekoaz gain, berdintasun-plan bat izan beharko dute eta hori betetzeko konpromisoa hartu beharko dute bere gain (I. Eranskina).
- f) Lizitzaileen dokumentu eta datu konfidentzialen aitortpena. Enpresa lizitzaileek adierazi egin beharko dute, hala badagokio, aurkeztutako dokumentu administratibo, tekniko eta datuetatik zeintzuk diren, beraien ustez, konfidentzialtzat hartu beharrekoak. Gainera, gorabehera hau argi eta garbi islatu beharko da (gaininprimatuta, ertzean idatzita edo beste edozein eratan) halakotzat hartutako dokumentuan bertan. Enpresa lizitzaileek aurkeztutako dokumentuak eta datuak konfidentzialtzat jo daitezke baldin eta hirugarren pertsona edo erakundeei ezagutaraztea haien interes komertzial legitimoen aurkakoa izan badaiteke edo enpresen arteko lehia leialari kalte egin badiezaioke. Horrelako adierazpenik aurkezten ez bada, ulertuko da ez dagoela izaera hori duten dokumentu edo daturik. (II. Eranskina)
- g) Hitzarmen kolektibo aplikagarriaren adierazpena eta laneko eta gizarteko araudia betetzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena (III. Eranskina). Kontratazio Mahaiak edozein unetan eskatu ahal izango du lizitzaileek beraien erantzukizunpean adierazi dituzten baldintzak betetzen direla justifikatzeko agiriak (hala nola lan-kontratu).

Lizitzaileak gehienez ere hiru egun balioduneko epean aurkeztu beharko du eskatu zaion dokumentazioa –errekerimendua jasotzen denetik kontaktzen hasita–. Errekerimendua aipatutako epearen barruan betetzen ez bada, ulertuko da lizitzaileak eskaintza erretiratu egin duela eta prozeduratik kanporatua izango da.



Begarako
Udala

"B" gutun-azalean, "MEMORIA TEKNIKOA" izenburupean, gutxienez 9. puntu zehaztutako atal guztiak garatu beharko dira, bai eta hilabete baterako programazioa ere.

Inoiz ez da sartuko kartazal honetan proposamena. Sartuz gero, lizitatzaileraren prozedura honetatik kanpo geratuko da eta ez da irekiko bere "C" kartazala.

"C" kartazalean, "ESKAINZA EKONOMIKOA" izenburupean, eskaintza ekonomikoa sartuko da, honako eredu honi jarraituz:

"Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

NAN zenbakia: _____

Noren ordezkartan _____ IFZ: _____

Ordezkatuaren helbidea: _____

Kontakturako e-maila edo fax-a:

Begarako Tokiko 2030 Agenda idazteko zerbitzua kontratatzeko deitutako prozedura irekiaren berri izan dut, eta zerbitzu hori emateko konpromisoa hartzen dut, betiere adjudikaziorako akordioaren arabera eta plegu honetako baldintza juridikoak, teknikoak eta ekonomiko-administratiboak eta honi ezar dakiokkeen legezko arautegia betez; eta konpromisoa hartzen dut lan horiek honako prezio honetan egiteko:

Eskaintako prezioa:

BEZ (%):

Urteko prezioa (BEZ barne)

Ordezkatzen dudun enpresak ireki, instalatu eta jarduteko indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen baldintza guztiak betetzen ditu.

Begarako, 2020ko(r)en(e)an

Sinadura"

Ez da onartuko eredu jasotako adierazpenak oso osoan ez dituen idatzitako inongo proposamenik.

Ez da sartuko kartazal honetan "B" kartazalean sartu beharreko dokumentazioa. Horietako dokumentuetakoren bat "C" kartazalean sartuz gero ez da baloratuko.

11. KONTRATAZIO-MAHAIA

Kontratazio-mahaia honako hauek osatuko dute:

LEHENDAKARIA:

- Bergarako Udaleko alkate-lehendakaria, edo hark eskuordetuko duena.

MAHAIKIDEAK:

- Kontuhartzailea, edo hark eskuordetuko duena.
- . Udaleko idazkaria, edo hark eskuordetuko duena; Kontratazio Mahaiko idazkari-lanak egingo ditu.

Mahaiaren bileran parte hartu ahal izango dute, aholkularitza-eginkizunetarako, Mahaiak eskatutako udal teknikari arduradun guztiek. Mahaiak, halaber, bidezko iritzitako txosten tekniko guztiak ere eskatu ahal izango ditu.

12. AGIRIAK SAILKATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA

Proposamenak aurkezteko epea amaitutakoan honako jarduketa hauek egingo dira:

1. “A” KARTAZALA IREKITZEA ETA BARRUAN DARAMAN DOKUMENTAZIOA KALIFIKATZEA

Eskaintzak aurkezteko epea amaitu eta gero, Kontratazio Mahaiak A kartazala irekiko du, eta dokumentuak badaudela egiaztatuko du; bestela, konpontzeko izapidea egingo du. Mahaiak, aurkeztutako agiriak kalifikatu ondoren eta, hala badagokio, antzemandako akatsak edo ez-eginak zuzendutakoan, zehaztuko du zein diren aukeraketa irizpideei egokitzen zaizkien enpresak eta berariaz adieraziko du nortzuk onartu dituen lizitazioan, nortzuk geratu diren kanpoan eta zergatik geratu diren kanpoan.

2. “B” KARTAZALA JENDAURREAN IREKITZEA

Proposamenak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo osteguneko 10:15ean egingo da “B” kartazala irekitzeko jendaurreko egintza, betiere lizitatzaileraren batek bere proposamena posta bidez igorri ez badu behintzat, zeren orduan kartazalak Administrazio Publikoen Kontratazioari buruzko Legearen Erregelamendu Orokorren 80. artikulua aipatzen duen epea amaitu eta hurrengo egun baliodunean irekiko baitira.

Hasierako deialdi honen mantentzea edo, kasu, aldaketak argitara emango dira Kontratatzailearen Profilean (www.bergara.eus), baina jakinarazpenetarako egoki jotzen den beste edozein bide ere erabili ahal izango da.

Egintza horretan berariazko adierazpena egingo da mahaiak proposamenei emandako kalifikazioari buruz eta lizitaziora onartu direnak identifikatuko dira, baita baztertu direnak ere, eta kasu horretan baztertzeko arrazoiak azalduko dira.

3. “C” KARTAZALA JENDAURREAN IREKITZEA

“B” kartazala ireki eta barruko dokumentazioa baloratu ondoren “C” kartazala irekiko da jendearen aurrean, Kontratatzailearen Profilean (www.bergara.eus) adierazitako egun eta orduan.

“C” kartazala ireki baino lehen, eskaintza bakoitzean balio-irizpide baten menpe dauden irizpideei eman zaien balorazioa jakinaraziko da.

4. ESKAINTZAK SAILKATZEA



Behin irizpide guztiak baloratu ondoren, aurkeztutako proposamenak Mahaiak sailkatu egingo ditu (puntuazio handienekotik gutxienekora) eta kontratua adjudikatzeko proposamena bideratuko du, gehienez ere 2 hilabeteko epean.

5. LEHEN SAILKATUARI ERREKERIMENDUA EGITEA

Lehenagoko ekintzak egin eta gero eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatuareari Alkatetzatik eskatuko zaio ondoren adierazten den dokumentazioa entregatu dezala hamar laneguneko epean, errekerimendua jaso duen egunaren biharamunetik hasita:

- a) Lizitatuarearen edo ordezkariaren Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia. Gainera, beste pertsona edo erakunde baten ordezkartzan jardunez gero, horretarako behar besteko ahalordetze-agiria.
- b) Lizitatuareala pertsona juridikoa bada: eratze edo aldaketa-eskritura, hala dagokionean, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribaturik eta identifikazio fiskaleko zenbakia (inskribapena aplikaziozkoa zaion merkataritza legeriarekin bat etorri eskatu ahal denean). Hala ez bada, eraketaren, estatutuen edo fundazio-egintzaren eskritura edo agiria aurkeztuko du, jarduteko gaitasuna duela frogatzeko. Agiri hori erregistro ofizial egokian inskribatuta egongo da, hala behar denean, eta bertan agertuko dira lehiatzailearen jarduera zuzentzen duten arauak.

Aurreko a) eta b) letretan adierazitako baldintzak egiaztatzeke aurkeztu ahalko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratista eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialeko ziurtagiria edo Espainiako Lizitatuareala eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialeko ziurtagiria. Ziurtagiri horri gehitu beharko zaio lizitatuarearen erantzukizunpeko aitortpena, non adieraziko den ziurtagiri horretan adierazten diren inguruabarrak ez direla aldatu.

- c) Kaudimen ekonomikoa: Lanbide-arriskuengatik erantzukizun zibileko aseguruua duela egiaztatzea –aseguruak gutxienez 150.000 euroko kopuruua izango du–. Egiaztigiri horrekin batera, kontratuaren iraupen osoan zehar aseguruua mantentzeko konpromisoa ere aurkeztu beharko du.
- d) Kaudimen teknikoa: Proiektua egiteke aurkeztuko den lantaldeak gutxienez bi pertsona izango ditu. Lantaldeke biek egiaztatu beharko dute azken bost urteetan Agenda 21 edo Agenda 2030ekin lotutako hiru proiektutan jardun izanaren esperientzia. Lantaldeke kideek goi mailako titulazioa izan beharko dute.

Horrez gain, bai proiektu-buruak, bai barneke edo kanpoko partaidetza-prozesuetan parte hartuko duten teknikariek, euskarari dagokionez Europako Erreferentzia Esparruko C1 gaitasun-maila izan beharko dute.

Proiektuaren buru izendatutako pertsonak lizentziaduna izan beharko du ingurumen-zientzietan, biologian, geografian, soziologian edo proiektuaren xedearekin zerikusia duen beste edozein gaitan. Gainera, azken bost urteetan Agenda 21 edo Agenda 2030ekin lotutako bost proiektutan buru edo zuzendari gisa esperientzia duela egiaztatu beharko du.

Esperientzia egiaztatzeke, azken bost urteetan proiektuaren xedearekin zerikusia duten proiektuen zerrenda aurkeztuko da, bertan adierazita proiektuaren titulua, organo esleipenduna, zenbatekoa eta iraupena. Euskara-

maila eta goi mailako prestakuntza egiaztatzeko, dagozkien ziurtagiriak edo tituluak aurkeztu beharko dira.

Egiaztapen horrek SPKLren 76.3 artikuluan xedatutako ondorioak izango ditu; hau da, enpresa adjudikazio-hartzaileak gaitasun teknikorako egiaztatutako giza baliabideak atxiki beharko dizkio kontratuaren exekuzioari. Langile bat ordezkatzuz gero, ordezkatzun duenaren datu/agiri guztiak aurkeztu beharko dira.

- e) Ekonomi Jardueren gaineko Zergan, kontratu-xedeari dagokion epigrafean hain zuzen ere, alta emanda egotearen egiaztageria, uneko ekitaldian bertan hartua badu, edo EJZren azken ordainageria gainerako kasuetan; eta kasu bietan ere, zerga horren matrikulan baja eman ez izanari buruzko erantzukizun-adierazpena aurkeztuko du.
- f) Zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean dagoela egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztea.
- g) Behin betiko bermea eratu dela justifikatzeko dokumentazioa.
- h) Enpresako arduradunaren edo ordezkariaren datuak.
- i) Memoria teknikoan proposatzen den zerbitzuari atxikitako langileen deskribapena egiaztatzen duen dokumentazioa (CV, titulazioa, esperientzia eta euskara-titulua, hala badagokio).

Halaber, Udal honekiko betebeharretan egunean dagoela egiaztatuko du ofizioz Udalak.

Adierazitako epe horretan errekerimendua zuzen bete ezean, lizitatzailerak eskaintza erretiratu egin duela ulertuko da eta hurrengo lizitatzailerari eskatuko zaio dokumentazio bera, betiere eskaintzen sailkapenaren hurrenkerari jarraituz.

13. ADJUDIKAZIOA ETA KONTRATUA

Adjudikazioa, gehienez ere, lizitatzailerak dokumentazioa aurkeztu eta hurrengo 5 egun baliodunetan gauzatu da, betiere lizitatzailerak adierazitako dokumentazioa aurkeztu badu eta behin betiko bermea jarri badu.

Adjudikazioa gehienez ere 15 eguneko epean argitaratuko da –behin betiko adjudikazioa egin eta hurrengo egunetik kontatzen hasita–. Eskaintza anormaltzat edo neurritz gaineratuz jotzen denean eskaintzailerari (edo eskaintzailerari, hala dagokionean) entzun egingo zaio eta dagokion zerbitzuak aholkularitza teknikoa egin beharko du.

Kasu horretan, lizitatzailerak emandako arrazoiak eta eskatutako txostenak aintzat hartuta, kontratazio-organoak proposamenik onuragarriena egiten duen lizitatzailerari egingo dio adjudikazioa, baldin eta Administrazioaren esanetan lanak egoki egiteko gaitasuna badu; bestela anormaltzat edo neurritz gaineratuz jotzen ez den proposamenaren alde egingo da adjudikazioa.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 152. artikularen arabera, kontratua burutzeari edo jardunbide honi uko egiten bazaio, adjudikazioak lizitatzailerari eragindako gastuak konpentsatzeko Administrazioak zehaztuko ditu gastuok, lizitatzailerari entzunaldia eman eta gastuak justifikatu ondoren.

Adjudikazio-hartzailearen erruagatik kontratua formalizatu gabe geratzen bada, udalak bertan behera utzi ahal izango du kontratua, interesduna entzun eta gero, eta honek kalte-ordainak ordaindu beharko ditu.

III. KONTRATUA GAUZATZEA

14. KONTRATUA GAUZATZEA

Kontratua beteko da zurrun eta zorrotz jarraituta baldintza ekonomiko-administratiboen eta teknikoaren pleguek diotenari, eta edozein kasutan ere, udal ordezkariak kontratistari agiri horiek diotena burutzeko edo interpretatzeko orduan idatziz emandako jarraibideei.

Kontratistak izango du egindako lanen eta emandako prestazio eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzukizuna eta baita kontratua betetzerakoan egiten dituen hutsegite eta akatsek, erabiltzen dituen metodo ezegokiek edo ateratzen dituen konklusio okerrekin Administrazioarentzat edo beste norbaitentzat izan ditzaketen ondorioen erantzukizuna ere. Kontratistak berari egotz dakizkiokkeen ekintzengatik hirugarrenei egiten zaizkien kalteen kalte-ordainak ordainduko ditu.

Kontratistak bete egin beharko ditu kontratu honen xede diren zerbitzuak emateko une bakoitzean indarrean dauden arau guztiak.

Kontratu-hartzailea derrigortuta dago kontratua burutzeko epea betetzera; berandutzak ez du eskatzen udalak aurretik ohartarazi beharrik.

Kontratista, prestazioa emateko, derrigortuta dago kontratua zuzen betetzeko beharrezkoak diren bitarteko laguntzaile guztiak eta ekipoa jartzera, kontratuan bertan hitzartutako epeetan.

Kontratu hau burutuko duten langileei dagokienez, enpresa kontratistak bere gain hartzen du edozein enpresabururi dagokion zuzendaritza-botereaz baliatzeko obligazioa. Bereziki, ondoko betebeharrak hartuko ditu bere gain: ordainsariak negoziatzea eta ordaintzea; baimenak, lizentziak eta opor-egunak ematea; lan-arriskuen prebentzio alorrean legez dauden betebeharrak betetzea; diziplina-zehapenak ezartzea –hala egitea dagokionean–; Gizarte Segurantzaren alorreko obligazioak betetzea –kotizazioen ordainketa eta prestazio-ordainketa barne–; eta baita enpleguaren eta enplegatzailearen arteko lan-kontratutik sortzen diren gainontzeko eskubide eta obligazio guztiak ere.

Enpresa kontratistak, gutxienez, koordinatzaile tekniko bat edo arduradun bat izendatu beharko du, bere plantillan integratua, eta beste batzuen artean obligazio hauek izango ditu:

A.- Kontratuarekin zerikusia duten gauza guztietarako kontratistaren pertsonalak Administrazioarekin egin behar duen edozein komunikazio jaso eta emateko orduan, beti izango da koordinatzailearen, teknikariaren edo horretarako izendatu den solaskidearen bidez.

B.- Enpresaren lan-arauak betetzen direla kontrolatzea, batik bat pertsonala lanlekura joan behar denean edo oporrak hartzen dituenean; kontratatutako zerbitzuaren eskaintza ez nahasarazteko.

C.- Kontratua egitera atxiki diren enplegatuek kontratuari atxikita segitzen ez dutenean, Administrazioari horren berri eman behar zaio, bereziki haiek zeuzkaten lan-bitartekoak modu egokiagoan kudeatu ahal izateko.

Hitzartutakoa burutzeari dagokionez, kontratuak duen termino horietako edozein ez ezagutzeak, kontratuaren zati diren dokumentu erantsiak ez ezagutzeak edo Administrazioak onartu dituen mota guztietako Baldintzak edo arauak, jarraibideak edo aginduak ez ezagutzeak, ez du salbuesten kontratista kontratua betetzeko duen bere obligazio horretatik.

Kontratu-hartzailearen arriskuz eta zoriz egingo da kontratua.

Kontratua udalaren zuzendaritzaren, ikuskapenaren eta kontrolaren pean burutuko da, eta honek idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

Bergarako Udalak zerbitzuaren zuzendaritza orokorrari dagokionean dituen eskumen orokorrez gain, kontratua behar bezala gauzatzeko jarraibide orokorrak zerbitzu horren ardura daraman Ingurumeneko teknikari arduradunaren bidez emango dira, besterik jakinarazten ez bada behintzat.

Kontratu-hartzaileari edo haren agindupekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz Bergarako Udalak uste badu kontratua behar bezala burutzea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela agindu ahal izango du.

15. KONTRATISTAREN LANeko BETEBEHARRAK

Enpresa kontratu-hartzaileak bete egin behar ditu lan arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasun eta higienezaren arloan indarrean dauden lege-xedapenak; eta aipatutakoak bete ezean, Bergarako Udala salbuetsita geldituko da horren inguruko edozein erantzukizunetatik. Era berean, behartuta dago, dagokion neurrian, honako hauek ere betetzera: azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua (Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartu zuena); martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa (Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoa); azaroaren 8ko 31/1995 Legea (Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa); Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua (urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuaren bidez onartutakoa) eta era berean, kontratua gauzatzen den bitartean promulgatuko daitezkeen araudiak aipatutakoen inguruan edo beste batzuk direla.

16. KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Kontralistek zein azpikontralistek kontratua gauzatzeko baldintza berezi hauek bete beharko dituzte:

Sozialak: Kontratu honek bete egin beharko ditu indarrean dauden lege-, erregelamendu- eta hitzarmen-xedapen guztiak (lan-arlokoak, gizarte-segurantzakoak eta laneko segurtasun eta osasunari buruzkoak).

Kontratua osorik gauzatu bitartean, kontratistak hitzarmen kolektibo aplikagarrian edo aurkezten duen hitzarmenean jasotzen den lansaria ordaindu beharko du, langileari dagokion kategoria profesionalaren arabera, eta ordaindu beharreko lansaria inola ere ez da hura baino txikiagoa izango.

Baldintza hori ez betetzea kontratuaren ez-betetze oso larria kontsideratuko du udalak eta kontratua suntsiarazteko kausa izango da.

